1. eta 8. kontrol mozioak batera eztabaidatuko dira.

Se tratan conjuntamente las mociones de control n.º 1 y n.º 8.

II.2.1. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, hiriko mugikortasun arazoei buruzkoa.

“Borja Corominas Fisas talde popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, INTERPELAZIOA aurkeztu baitzuen Gune Publikoen, Obrak eta Hiri Zerbitzuen batzordean, hiriko mugikortasun arazoen inguruan.

JUSTIFIKAZIOA

Uda honetan, Donostiako mugikortasuna erabateko kaosa izan da. Alderdi Popularrak, Udalbatzan ordezkaturako talde politiko guztien jarreraren aurka, hainbat hilabete darama egoera salatzen, hain zuzen ere Gobernu Taldearen asmoak ezagutu zirenetik. Mugikortasunaren arloko erabakiak gogoetarik egin gabe hartzen dira, hiriko eragile nagusiak kontuan hartu gabe, hirian mugikortasunean eskumenak dituzten erakundeak kontuan hartu gabe, ibilgailuen zirkulazioa oztopatzeko helburuarekin soilik.

Udalak aplikatu nahi dituen neurriak tantaka ezagutu ditugu, eta askotan modu kontraesankorrean. Ez dago helburu argirik duen planik, benetako arazoei aurre egin eta konponbide espezifikoak eman nahi dituenik.

Hori dela eta, honako hau aurkeztu dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal

II.2.1. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre los problemas de movilidad en la ciudad.

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación plasmada en la Comisión de Espacio Público y Servicios Urbanos, sobre los problemas de movilidad en la ciudad

JUSTIFICACIÓN

La movilidad en San Sebastián este verano ha sido un completo caos. Algo que el Partido Popular, en contra de la posición de todos los grupos políticos representados en el Pleno, lleva denunciando desde hace meses, desde el momento en que se conocieron las intenciones del Equipo de Gobierno. Las decisiones en materia de movilidad se toman de manera irreflexiva, sin tener en cuenta a los principales agentes de la ciudad, sin tener en cuenta a las instituciones con competencias en movilidad en la ciudad, con el único objetivo de entorpecer el flujo de tráfico rodado.

Hemos ido conociendo, a cuenta gotas, y muchas veces de manera contradictoria, las medidas que el Ayuntamiento pretende aplicar. No hay un plan, con objetivos claros, que respondan a problemas reales y pretendan aportar soluciones específicas.

Por estos motivos presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián

Gobernuari eskatzen dio hilabeteko epean mugikortasun-plan bat aurkezteko. Hau da, hautemandako arazoak, planteatutako konponbideak, definitutako helburuak eta ebaluazio-metodologia zehaztuta dituen plan bat, eta kronograma xehatu bat ere baduena.

2. Donostiako Udalbatzak Donostiako mugikortasun-eragile nagusiekin eta alderdi politikoekin elkarrizketa-prozesu bat irekitzeko eskatu dio Udal Gobernuari, Mugikortasun Plan hori defendatzeko eta parte hartzeko prozesu bat hasteko, bertan ikuspegi eta hobekuntza desberdinak txertatu ahal izateko. Elkarrizketa-prozesu garden bat abian jartzea ere eskatzen dugu, herritarrei ere irekia.

Donostian, 2022ko irailaren 22an

Borja Corominas Fisas,
Udal Talde Popularreko bozeramailea”.

II.2.8. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, hiriko erdialdeko zirkulazio-kolapsoari buruz.

“Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL-MOZIO hau aurkezten du, hiriko erdialdeko zirkulazio-kolapsoari buruz, UDALBATZAREN OSOKO BILKURAN EZTABAITZATEKO.

JUSTIFIKAZIOA

Uda honetan, berriz ere, askoren ustez, zirkulazio-kaos bat bizi izan dugu Donostiako erdigunean.. Auto-ilara ugari izatearen arrazoi nagusietako bat erdigunean dauden lurpeko sei aparkalekuak dira; horregatik, bisitari asko ibilgailu pribatuarekin etortzen dira hirira, eta erdigunean aparkatzen saiatzen dira. Egun batzuetan, aparkaleku horietako batzuk bete

insta al Gobierno Municipal a presentar, en el plazo de un mes, un plan de movilidad. Con problemas detectados, soluciones planteadas, objetivos definidos y metodología de evaluación. Con un cronograma detallado.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a abrir un proceso de diálogo con los principales agentes de la movilidad donostiarra y los partidos políticos para defender ese Plan de Movilidad y empezar un proceso de participación en el que se puedan introducir diferentes puntos de vista y mejoras. Un proceso de diálogo transparente y abierto también a la ciudadanía.

San Sebastián, a 22 de septiembre de 2022

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”.

II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al colapso circulatorio del centro de la ciudad.

“Aitzole Araneta, portavoz del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, relativa al colapso circulatorio del centro de la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

Este verano, de nuevo, se ha vuelto a vivir en el centro Donostia lo que muchos ya denominan un caos circulatorio. Una de las causas principales de esas numerosas retenciones son los 6 parkings subterráneos situados en el centro, que hacen que muchos de los visitantes que recibe la ciudad traten de aparcar en el centro con su vehículo privado. Hay días, en los que parte de esos

egin dira, eta ibilgailu pribatuek erdialdean bueltaka ibili behar izan dute, eta zirkulazioa kolapsatu. Aparkalekuetako sarreretan, gainera, ilarak sortzen dira, autoak zain gelditzen dira-eta lurpean plazaren bat noiz libratuko; horrek areagotu egiten du lurrazaleko zirkulazioa.

Egoera horri dagokionez, Dbuseko langileen lan-ordezkariek honako hau adierazi dute: “Gogoan dugula, hauxe izan da udarik txarrena trafiko-ilareei dagokienez. Gidari batzuek 35 urte daramatzate gidatzen eta ez dute halakorik gogoratzen”. Halaber, adierazi dute uda baino lehen neurriak hartzeko eskatu ziotela Gobernuari, baina azkenean ez zela ezer egin horren inguruan.

Egoera hori, ez bakarrik errepikatzen da uda guztietan, baizik eta okerrera doa. Gainera, gobernu honek azken urteotan bisitarien inguruan garatu dituen politiken ondorioz, egoera hori ez da gertatuko soilik udako egun jakin batzuetan, baizik eta gerta daiteke asteburuetan, zubietan edo datozen Gabonetan ere. Horregatik, neurriak hartu behar dira lehenbailehen, hirian ibilgailu pribatu gutxiago sartzeko.

Horiek horrela, honako hau egiten dut

KONTROL-MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bila ditzala Donostiako erdialdeko txandakako aparkalekuetan dauden plaza erabilgarriak gutxitzeko formulak.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari disuasio-aparkalekuak gehitu ditzala eta berma dezala

aparcamientos se han llenado, lo que ha provocado que los vehículos privados se vean obligados a dar vueltas por la almendra central colapsando la circulación. En las entradas de los parkings, además, se forman filas de coches a la espera de conseguir alguna plaza libre bajo tierra, lo que tensiona aún más la circulación en superficie.

Sobre esta situación, representantes laborales de los trabajadores de Dbus han declarado que: “ha sido el peor verano en cuanto a atasco de tráfico que recordamos. Hay chóferes que llevan 35 años al volante y no recuerdan algo igual”. También han relatado que antes del verano pidieron al Gobierno que tomara medidas pero que finalmente no se hizo nada al respecto.

Esta es una situación que ya no solo se repite todos los veranos, sino que cada vez es peor. Además, las políticas sobre visitantes que este gobierno ha desarrollado los últimos años han provocado que esta no sea solo una situación que se vaya a vivir en días puntuales de verano, sino que se puede llegar a dar en fines de semana, puentes, o en épocas festivas como las próximas navidades. Por eso, es necesario tomar medidas cuanto antes para reducir la entrada de vehículos privados en la ciudad.

Por todo ello presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a buscar fórmulas para disminuir el número de plazas disponibles en los parkings de rotación de la zona centro de Donostia.
2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a ampliar el número de parkings disuasorios y asegurar una

horiek hirigunearekin konexio eraginkorragoa izatea.

conexión eficiente de éstos parkings con el centro de la ciudad.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari konpon ditzala aldaketek San Martin kalean sortu dituzten arazoak, bai txirrindulariek bidegorrian dituztenak, bai autobusek Urbietan kaleko bidegurutzean dituztenak.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a solucionar los problemas que las modificaciones han producido en el la calle San Martín tanto para los ciclistas con los problemas en el bidegorri como para los autobuses en el cruce con la calle Urbietan.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari heldu diezaiola berriz talde politikoekin Donostiako etorkizuneko mugikortasunari buruz gogoeta egiteko prozesuari eta zabal diezaiela gizarte zibileko eragileei.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a retomar el proceso de reflexión sobre la futura movilidad de Donostia con los grupos políticos y a ampliarlo con agentes de la sociedad civil.

Donostia, 2022ko irailaren 23a

Donostia, a 23 de Septiembre de 2022

Sinatua: Aitzole Araneta
Elkarrekin Donostia udal taldearen
bozeramailea”.

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu hauetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en estos puntos el/las señor/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

1. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:

1. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 9 – (5) EH BILDU, (3) PP,
(1) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)
PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 9 – (5) EH BILDU, (3) PP,
(1) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)
PSE-EE.

ABSTENCIONES: 0.

1. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA
MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 14 – (5) EH BILDU, (5)
PSE-EE, (3) PP, (1) ELKARREKIN
DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 10 – EAJ/PNV.

ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 14 – (5) EH BILDU, (5)
PSE-EE, (3) PP, (1) ELKARREKIN
DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 10 – EAJ/PNV.

ABSTENCIONES: 0.

8. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:

HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE
ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:

8. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA
MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 6 – (5) EH BILDU, (1)
ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5)
PSE-EE, (3) PP.

ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 6 – (5) EH BILDU, (1)
ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5)
PSE-EE, (3) PP.

ABSTENCIONES: 0.

8. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 14 – (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 10 – EAJ/PNV.

ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 14 – (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 10 – EAJ/PNV.

ABSTENCIONES: 0.

8. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 10 – EAJ/PNV.

ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 10 – EAJ/PNV.

ABSTENCIONES: 3 – PP.

8. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 14 – (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 10 – EAJ/PNV.

ABSTENTZIOAK: 0

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 14 – (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 10 – EAJ/PNV.

ABSTENCIONES: 0

ATSEDENALDIA

14:00AN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:00AN.

RECESO

SIENDO LAS 14:00 H., SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN, CUANDO SON LAS 15:00 H.

II.2.2. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, hirian eduki politikoa duten pankarten ugaritzeari buruzkoa.

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia alkateari, hirian eduki politikoko pankartak ugaritu direla eta, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) azter dadin.

II.2.2. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la proliferación de pancartas de contenido político en la ciudad.

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación plasmada en la Comisión de Espacio Público y Servicios Urbanos, sobre la proliferación de pancartas de contenido político en la ciudad.

JUSTIFIKAZIOA

Udan, kezka handiz ikusi dugu, eta behin baino gehiagotan salatu, eduki politikoko pankartak agertu direla. Gehienak ETAko presoek buruzkoak dira, haiek askatzeko eskatzen dute, eta horrek biktimak umiliatzen ditu, eta Donostiako hiriaren irudia zikintzen.

Ikusi ditugu, ordea, alderdi politiko nazionalisten pankartak ere. Adibidez, estropadetan, EGI EAJri lotutako gazte-elkarteak bi pankarta zintzilikatu zituen Miramar jauregiko lorategiko hesietan, Ondarretatik eta Kontxatik ikusteko moduan, eta Udalak (garbiketa-zerbitzuak edo Udaltzaingoa) ez zuen ezer egin haiek kentzeko. Goiz guztian egon ziren jarrita.

Karmenetan eta Aste Nagusian Parte Zaharrean, eta Porrontxoetan Egian, apologia

JUSTIFICACIÓN

Durante el verano hemos visto con preocupación y denunciado en numerosas ocasiones la aparición de pancartas de contenido político, la mayoría con referencias a presos de ETA, exigiendo su liberación, humillando a las víctimas y ensuciando la imagen de la ciudad de San Sebastián.

Pero también hemos visto pancartas de formaciones políticas nacionalistas. Por ejemplo, durante las regatas, en el Palacio de Miramar la asociación juvenil vinculada al PNV, EGI, colgó dos pancartas de las vallas del jardín, visibles tanto desde Ondarreta como desde La Concha, sin que el Ayuntamiento (servicios de limpieza o Policía Municipal) hiciera nada para retirarlas. Permanecieron colgadas durante toda la mañana.

Durante El Carmen o Semana Grande en lo Viejo, y durante Porrontxos en Egia, la apología a ETA y

etengabea egin zaie ETari eta haren hiltzaileei. Guztiz onartezinak dira ETako presoak askatzearen aldeko herri-ekitaldiak eta Jon Olarra eta Ainhoa Mujika etakideei eskainitako pregoia, Udalak diruz lagundutakoak. Udalak argi eta garbi gaitzetsi beharko lituzke halakoak.

Horiek horrela, hau da gure

KONTROL-MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari gaitzetsi dezala jarduera terrorista goستن duen, ETako presoak askatzeko eskatzen duen edo haren ekintzak justifikatzen dituen ekintza oro.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ekintza horiek babesten edo antolatzen dituzten erakundeei dirulaguntza publiko guztiak kentzeko.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berehala ken ditzala eduki politikoko pankartak, batez ere ETako presoek buruzkoak badira.

Donostia, 2022ko irailaren 22a

Borja Corominas Fisas
Talde Popularraren bozeramailea”.

a sus asesinos ha sido constante. Actos populares subvencionados por el Ayuntamiento en favor de la liberación de presos etarras o el pregón de las fiestas, dedicado a los etarras Jon Olarra y Ainhoa Mujika, son del todo inaceptables y el Ayuntamiento debería condenarlos de manera inequívoca.

Por esos motivos proponemos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a condenar cualquier acto que enaltezca la actividad terrorista, pida la liberación de presos de ETA o justifique sus acciones.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a retirar cualquier subvención pública a las organizaciones que amparen u organicen estos actos

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a la inmediata retirada de pancartas de contenido político, especialmente si hacen referencia a presos de ETA.

San Sebastián, a 22 de septiembre de 2022

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Reyes Carrere Zabala andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D.ª Reyes Carrere Zabala y D. Martín Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.
AURKAKO BOTOAK: 21 – (10) EAJ/PNV, (5)
EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN
DONOSTIA.
ABSTENTZIOAK: 0.

RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – PP.
VOTOS EN CONTRA: 21 – (10) EAJ/PNV, (5)
EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN
DONOSTIA.
ABSTENCIONES: 0.

II.2.4. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, gutxieneko hornidura energetikoa bermatzeari buruz.

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko irailaren 19an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2008az geroztik okerrera egin dute pobrezia energetikoaren inguruko adierazleek eta egoera gero eta zailagoa da prezioen gorakadaren ondorioz. Milaka dira etxean berokuntza edo hozte-sistema egokiak lortzeko gastuei aurre egiteko gaitasun ekonomikoa ez duten herritarrak eta, zantzu guztien arabera, egoera are larriagoa izango da datozen hilabeteotan, hainbat adituk eta ordezkari publikok adierazi duten bezala.

Aitzitik, arazo horri aurre egiteko artikulatu diren politikak ez dira nahiko, oso motz geratzen dira, kontinuitateak direlako eta ez diotelako gaur egungo egoerari erantzuten, betiko errezetak erabiltuta aurrekaririk gabeko egoera baten aurrean.

II.2.4. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la posibilidad de garantizar del suministro energético mínimo.

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH BILDU, en base al artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para su consideración en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas el 19 de septiembre de 2022.

JUSTIFIKAZIOA

Desde 2008, se observa un empeoramiento de los indicadores de pobreza energética, siendo, además, la situación, en general, cada vez más complicada, debido al incremento de los precios. Son miles los ciudadanos y ciudadanas que carecen de posibilidades económicas para hacer frente a los gastos de calefacción o de refrigeración en el hogar y, según todos los indicios, la situación será aún más grave en los próximos meses, tal y como han señalado varios expertos y representantes públicos.

Sin embargo, las políticas que se han articulado para hacer frente a este problema no son suficientes y se quedan muy cortas, porque son continuistas y no responden a la situación actual, además de utilizar las mismas recetas de siempre para responder a una situación sin precedentes.

Adituek negu gogor bat aurreikusi dute arlo sozio-ekonomikoari dagokionez. Estatistikak ere egoera okertzen ari direla dio. Esate baterako, ekainean argitaratu zen Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) egindako 2021eko Bizi Baldintzen Inkestaren arabera, EAEko biztanleen %16ak arazoak ditu hilaren amaierara iristeko: 2020an baino bi puntu gehiago. Halaber, Gurutze Gorriak argitaratutako lan batean ohartarazi digu bertan arreta jasotzen duten familien %75ak ezingo duela bere etxebizitzan tenperatura egokia mantendu, bereziki neguan, diru-sarreraren erdia baino gehiago etxebizitza ordaintzeko erabiltzen duelako. Bestetik, UNICEF eta Save the Children erakundeek adingabeen pobrezia areagotzeaz hitz egin digute. Testuinguru horretan, oinarritzko horniduren prezioak (gasolina, gasa, elektrizitatea...) familien zailtasunen eskutik hazten doaz.

Jakinda ekoizpen, kontsumo eta energia ereduak eraldatzeko egiturazko neurriak behar ditugula, bien bitartean, gertu ditugun eta iragarrita dauden larrialdi egoerei behin-behineko soluzioak jartzeko intentzioaren inguruan interpelatu dugu delegatua iraileko batzordeetan. Haren iritziz, Udal Gobernuak 2019an diseinatutako neurriak gaur egungo egoerari erantzuteko nahikoak dira; hau da, indarrean dauden dirulaguntzen (GLL zein udal dirulaguntzak) aurrekontua igotzea demanda handitzen bada.

Jakinda beharra duten pertsona asko diru-sarrerak bermatzeko sistematik kanpo geratzen direla gaur egungo bizi-egoeretara egokitzen ez diren baldintza batzuegatik (Jaurilaritzaren 2018ko pobrezia-inkestaren datuen arabera, EAEn 192.000 pertsona daude bazterketa-arriskuan, eta pertsona horien %30 diru-sarrerak bermatzeko sistematik kanpo geratzen dira) eta negu honetarako dauden aurreikuspen sozio-

Los expertos han previsto un invierno duro en lo socio-económico. También según las estadísticas la situación está empeorando. Por ejemplo, según la Encuesta de Condiciones de Vida 2021, publicada en junio por el Instituto Nacional de Estadística (INE), el 16 % de la población vasca tiene dificultades para llegar a fin de mes: dos puntos más que en 2020. Asimismo, Cruz Roja ha publicado un trabajo en el que nos advierte de que el 75 % de las familias atendidas por dicha entidad no podrán mantener una temperatura adecuada en su vivienda, especialmente en invierno, ya que más de la mitad de los ingresos se destinan al pago de la vivienda. Por otro lado, UNICEF y Save the Children nos hablan de que ha aumentado la pobreza entre los menores. En este contexto, también los precios de los suministros básicos (gasolina, gas, electricidad...) van creciendo, a la par que lo hacen las dificultades que experimentan las familias.

Somos conscientes de que necesitamos medidas estructurales para transformar los modelos de producción, consumo y energía. Mientras esto llega, en las comisiones de septiembre, hemos interpelado al delegado en torno a la intención de poner soluciones provisionales a situaciones de emergencia próximas y anunciadas. A su juicio, las medidas diseñadas por el Gobierno Municipal en 2019 son suficientes para responder a la situación actual (incrementar el presupuesto de las subvenciones vigentes, tanto AES como municipales, si aumenta la demanda).

Siendo conscientes de que muchas personas con necesidad quedan fuera del sistema de garantía de ingresos, debido a la exigencia de unas condiciones que no se adaptan a las situaciones vitales actuales (según datos de la encuesta de pobreza del Gobierno Vasco de 2018, en la CAPV hay 192.000 personas en riesgo de exclusión, de las cuales el 30 % quedan fuera del sistema de garantía de ingresos), y teniendo en cuenta las

ekonomiko larriak, ezin dugu ulertu Udal Gobernuaren jokaera.

Izan ere, erakunde publikoek esfortzu handiagoa egin beharko lukete, inor gutxieneko hornidura energetikorik gabe ez geratzeko.

Hortaz, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari beharrezko hornidura energetikoa bermatu ezin duten eta ohiko dirulaguntzetatik (Gizarte Larrialdietarako Laguntzak edo Lan Partekatuen Plana) kanpo gelditzen diren herritarren egoerari erantzuna emateko aukerak edo dirulaguntza alternatiboak planteatzen dituzala, neguan inor gutxieneko hornidura energetikorik gabe gera ez dadin.

Donostian, 2022ko irailaren 22an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

graves previsiones socio-económicas que existen para este invierno, no podemos entender la actuación del Gobierno Municipal.

De hecho, las instituciones públicas deberían hacer un mayor esfuerzo para que nadie se quede sin suministro energético mínimo.

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN:

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que plantee posibilidades o subvenciones alternativas que permitan dar respuesta a la situación de los ciudadanos y ciudadanas que no pueden garantizar que tendrán el abastecimiento energético necesario y que están excluidos o excluidas de las subvenciones habituales (Ayudas de Emergencia Social o Plan de Trabajo Compartido), con el objetivo de que en invierno nadie se quede sin el suministro energético mínimo.

San Sebastián, 22 de septiembre de 2022

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Aitziber San Roman Abete andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoa jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.^a Olaia Duarte López, D.^a Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Mikel Lezama Zubeldia y D.^a Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 9 – (5) EH BILDU, (3) PP,

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 9 – (5) EH BILDU, (3) PP,

(1) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)
PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

(1) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)
PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

II.2.5. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Marrutxipin moztutako zuhaitzei buruzkoa.

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Garbiñe Alkiza López de Samaniegok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko irailaren 19an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Ekainean Marrutxipiko lotunea egiteko lanak hasi ziren. Eta abuztuan aurretik hainbat ingurumen eragilek eta bizilagunek salatu zutena gertatu zen: lotune berria egiteko markatuta zeuden ehunka zuhaitz moztu egin zituzten.

Aspaldi esan genuen Marrutxipiko lotunea egiteko 542 zuhaitz moztuko zirela. Horietatik 180 zuhaitz Udalaren lursail batean zeuden eta beste 362, aldamenean, Foru Aldundiaren lursail batean.

Horri buruz galdetuta, 2021eko irailean, udal eta foru gobernuburuek komunikabideen bidez adierazi zuten ingurumenean ez zela kalterik izango. Are gehiago, Etzietako parkea eta haren ingurua ez zela ukituko esan zuten. Baina gaur egun, errealitatea beste bat da eta bertatik

II.2.5. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los árboles talados en Marrutxipi.

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio del 19 de septiembre de 2022.

JUSTIFICACIÓN

En junio, se iniciaron las obras del enlace de Marrutxipi. En relación con esta actuación, el pasado mes de agosto se ha producido algo que ya había sido denunciado por parte de diversos agentes medioambientales y vecinas y vecinos: para construir el nuevo enlace, se han talado cientos de árboles que habían sido marcados previamente.

Como habíamos dicho hace tiempo, el enlace de Marrutxipi requeriría la tala de 542 árboles. De ellos, 180 árboles se encontraban en una parcela municipal y otros 362, en una colindante, perteneciente a la Diputación Foral.

Preguntados al respecto, en septiembre de 2021, los jefes de los Gobiernos municipal y foral manifestaron, mediante declaraciones públicas, que no se iba a producir ningún daño medioambiental. Incluso dijeron que no se iba a tocar el parque de Etzieta y su entorno. Pero la

pasatzen den orok ongi ikus dezake egindako izugarrizko mozketak eta lur mugimendua. Parke bera nola geratu den ere.

Eta hau guztia Larrialdi Klimatikoa bizi dugun garaian, non eta berdeguneak babestu behar diren. Temperaturek gora egin dutenean eta 2022ko udan azken urteetako errekorak ezagutu ditugunean. Ahaztu gabe, Donostiako Udalaren Ingurumen Sailaren arabera, temperatura gora egiten ari den honetan, Intxaurrondo izango dela hiriko temperatura altuenetakoa izango duen auzoetako bat. Hortaz, ingurumen aditu guztiek argi diote artifizializazioa gelditzeko eta berdeguneak babesteko aroan gaudela. Inoiz baino garrantzitsuagoa da, hirian eta auzoetan, berdeguneak eta itzalgune naturalak izatea.

Eta kontuan hartuz, gainera, egin beharreko lotune berriarekin, autoei sarrera emango zaiela Intxaurrondotik hiriaren erdigunera eta horrek, berekin, auto-kopurua igotzea ekarriko duela, bai eta CO₂ emisioak handitzea ere. Gaur egun, nazioartean, hiriak bestelako norabide bat hartzen ari dira: autoei sarbidea murriztea eta espazio publikoak eta berdeguneak berreskuratzea.

Eneko Goia alkatearen ustez, jarduketa hori ezinbestekoa zen; hau da, Marrutxipiko lotunea eraikitzeko, Intxaurrondon 500 zuhaitz baino gehiago botatzea «ezinbestekoa» zen.

Honi guztiari buruzko interpelazioa egin genuen Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean: Udal Gobernuak berriro ere mozketak justifikatu zuen, eta beste landaketa bat egiteko asmoa agertu zuen arren, ez zuen inongo xehetasunik eman hari buruz eta agerian utzi zuen, beraz, ez duela ez horretarako konpromiso garbirik ez proiektu zehatzik.

realidad es otra, y todo el que pasa por allí puede comprobar la tremenda tala y el movimiento de tierras que se han hecho, así como el estado en que ha quedado el propio parque.

Y todo ello en un momento de emergencia climática, en el que es necesario proteger las zonas verdes. Cuando las temperaturas han aumentado, y en el verano de 2022 hemos alcanzado récords con respecto a los últimos años. Sin olvidar que, según el Departamento de Medio Ambiente del Ayuntamiento de San Sebastián, en un escenario de aumento de la temperatura, Intxaurrondo será uno de los barrios con temperaturas más altas de la ciudad. Por tanto, debemos frenar la artifizialización y proteger las zonas verdes. Es más importante que nunca disponer, tanto en la ciudad como en los barrios, de zonas verdes y zonas de sombra naturales.

Hay que tener en cuenta, además, que con el nuevo enlace que se va a construir, se dará acceso a los coches desde Intxaurrondo hasta el centro de la ciudad y que ello conllevará un aumento del número de coches, así como un aumento de las emisiones de CO₂. En la actualidad, a nivel internacional, las ciudades están tomando un rumbo diferente: restringir el acceso a los coches y recuperar los espacios públicos y las zonas verdes.

En opinión del alcalde, Eneko Goia, esta actuación era necesaria, es decir, para construir el enlace de Marrutxipi era "imprescindible" el derribo de más de 500 árboles en Intxaurrondo.

En la Comisión de Desarrollo Territorial y Planificación formulamos una interpelación sobre todo ello: el Gobierno municipal justificó nuevamente la tala que se ha llevado a cabo, y, aunque mostró su intención de realizar una nueva plantación, no dio ningún detalle al respecto; por tanto, puso de manifiesto que no tiene compromisos claros ni proyectos concretos para

ello.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Intxaurrondo auzoko gune batean berdegune, itzalgune eta zuhaitzi berri bat sor dezan lehenbailehen, Marrutxipiko lotunearekin eraitsitako parkea eta zuhaitzia ordezkatzeko.

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a crear cuanto antes una nueva zona verde, espacios con sombra y arbolado en el barrio de Intxaurrondo, que sustituyan al parque y al arbolado derribados con motivo de la construcción del enlace de Marrutxipi.

Donostian, 2022ko irailaren 22an

En San Sebastián, a 22 de septiembre de 2022

Garbiñe Alkiza López de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoa jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Garbiñe López de Samaniego, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas y D. Martín Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

II.2.6. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, etxe eremuan kalitatezko zaintza lanak bermatzeari buruz.

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du

II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a garantizar trabajos de cuidados de calidad en el ámbito doméstico.

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción,

Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko uztailaren 11n Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azkenaldian asko hitz egiten ari da zaintza eredu berri baten beharraz eremu politiko-instituzionalean; gutxiago, ordea, zaintzaileek jasaten duten lan-prekarizazioa amaitzeko neurriez.

Hain zuzen ere, mendekotasunaren atentziorako eta autonomiaren promoziorako 39/2006 legeak zaintzaile profesionalak kontratatzeke dirulaguntzak arautzen ditu, Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa delakoaren bidez (hemendik aurrera LPPE). Izan ere, LPPEaren bidez, mendekotasuna duten pertsonen autonomia sustatzeko laguntzaile pertsonalen kontratazioak ekarritako gastuak ordaintzen lagundu nahi da erakunde publikoetatik. Hau da, LPPE baten bidez zaintzarako pertsona bat kontratatzeak dituen gastuak (nomina, kotizazioa eta abar) ordaintzen laguntzen du administrazio publikoak. Zenbatekoa zerbitzuaren kostu errealearen arabera zehazten da, baina, gehienez, honako kantitate hauek ordaintzen dira hilabetero: III Gradu edo 75 puntutik 100 puntura MBBan (Mendekotasun Balorazioaren Baremoan), 834€; II Gradu edo 50 puntutik 74 puntura MBBan, 464 euro; I Gradu edo 25 puntutik 49 puntura MBBan. 300 euro (iturria: GFAko egoitza birtuala 2022/09/22an kontsultatua).

Eskura dauden 39/2006 legeko hiru prestazioetatik, LPPEa eskatzen da gehien azkenaldian. Esate baterako, pandemia hasi zen urtean, 7.640 gipuzkoarrek jaso zuten dirulaguntza hori (%78, 80 urtetik gorakoak) eta, Donostiaren kasuan, 2.000 zaintzaile baino

para su tratamiento en el Pleno. La moción trae causa de la interpelación sustanciada en la Comisión de Servicios a las Personas del 11 de julio de 2022.

JUSTIFICACIÓN

Últimamente se está hablando mucho de la necesidad de un nuevo modelo de cuidados en el ámbito político-institucional y menos de las medidas para acabar con la precarización laboral que sufren las personas cuidadoras.

En concreto, la Ley 39/2006 de atención a la dependencia y promoción de la autonomía regula las ayudas económicas a la contratación de personas cuidadoras profesionales a través de la denominada prestación económica de asistencia personal (en adelante PEAP). De hecho, la PEAP pretende contribuir desde las instituciones públicas a sufragar los gastos derivados de la contratación de asistentes personales para la promoción de la autonomía de las personas en situación de dependencia. Es decir, la administración pública contribuye —mediante la PEAP— a sufragar los gastos (nómina, cotización, etc.) que supone la contratación de una persona para el cuidado. El importe se determina en función del coste real del servicio, con un límite de cantidad mensual determinado por tramos: dependencia de grado III o de 75 a 100 puntos en el BVD, 834 euros; de dependencia de grado II o de 50 a 74 puntos en el BVD, 464 euros; dependencia de grado I o de 25 a 49 puntos en el BVD, 300 euros (fuente: sede virtual de la DFG consultada el 22/09/2022).

De las tres prestaciones disponibles de la ley 39/2006, la PEAP es la demandada últimamente. Por ejemplo, en el año de inicio de la pandemia, 7.640 personas guipuzcoanas recibieron esta subvención (78 % mayores de 80 años) y, en el caso de Donostia, más de 2.000 personas

gehiago daude kontratatuta laguntza honi esker. Gizarte-ekintzako 2021eko memoriaren arabera, urte horretan Donostian eskatutako mendekotasun dirulaguntzetatik, %33,78 (379) zaintzaileak kontratatzeko izan dira eta, guztira, 8.874.779,09 euro inbertitu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak hirian kontratazio horiek egiteko.

Nahiz eta laguntza honen ardura Gipuzkoako Foru Aldundiarena den, tramitazioa Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuen bidez egiten da. Era berean, askotan, zaintzailea behar duten familiek gizarte zerbitzuetara eta hirugarren sektoreko eragileengana jotzen dute zaintzailea bilatzeko.

Udaleko gizarte-zerbitzuen memoriaren arabera, udal gizarte langileek mendekotasun egoeran dauden eta laguntzaren bat jasotzen duten 1.009 donostiarrei jarraipena egin diete etxeko bisiten bidez; batez ere, familia ingurunean zaindua izateko prestazioa jasotzen dutenei.

Uztaileko batzordeetan delegatua interpelatu genuen zaintzaile hauen lan-baldintzen kontrolaren inguruan. Batzordean azaldu genuen bezala, jarraipen eta ikuskaritza egokirik gabe, ez dago jakiterik zaintzaileek lan-baldintza egokietan lan egiten duten ala ez. Izan ere, etxeko zaintzaileekin lan egiten duten elkarte eta sindikatuek etengabe salatzen dute kontratuetakako baldintzak ez direla betetzen, ordu gehiagoz lan egiten dutela, atsedeen orduak eta egunak ez direla errespetatzen eta abar.

Horren aurrean, delegatuak erantzun zigun kontrolaren ardura lan-ikuskaritzarena dela eta gizarte-zerbitzuek ezin dutela lan hori beren gain hartu, nahiz eta etxeko bisitak egiten diren.

cuidadoras están contratadas gracias a esta ayuda. Según la memoria de acción social 2021, de las subvenciones de dependencia solicitadas ese año en Donostia / San Sebastián, el 33,78 % (379) han sido destinadas para la contratación de personas cuidadoras, habiendo invertido la Diputación Foral de Gipuzkoa 8.874.779,09 euros para estas contrataciones en la ciudad.

Aunque la responsabilidad de esta ayuda es de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la tramitación se realiza a través de los servicios sociales de base del Ayuntamiento. Asimismo, en muchas ocasiones, las familias que necesitan una persona cuidadora recurren a los servicios sociales y agentes del tercer sector para buscarla.

Según la memoria de los servicios sociales municipales, las personas trabajadoras sociales municipales han realizado un seguimiento a 1.009 donostiaras en situación de dependencia que reciben algún tipo de ayuda a través de las visitas domiciliarias, sobre todo a quienes perciben la prestación de cuidado en el entorno familiar.

En las comisiones de julio interpelamos a la concejala delegada sobre el control de las condiciones laborales de estas personas cuidadoras. Tal y como expusimos en la Comisión, sin un adecuado seguimiento y supervisión, no se puede saber si las personas cuidadoras trabajan en condiciones laborales adecuadas. De hecho, las asociaciones y sindicatos que trabajan con personas cuidadoras de hogar denuncian constantemente que no se cumplen las condiciones de los contratos, que trabajan más horas de las establecidas, que no se respetan las horas de descanso y los días, etc.

Ante ello, la concejala delegada nos contestó que la responsabilidad del control es de la inspección de trabajo y que los servicios sociales no pueden asumir esta tarea, aunque se realizan visitas domiciliarias.

Kontuan izanda diru publikoarekin kontratatuta dauden zaintzaileen kopurua esanguratsua dela, urtetik urtera handituz doala, lan-ikuskaritzatik ez dela etxeetan bisitarik egiten eta zaintza zein mendekotasunarekin erlazionatutako gestio guztiak gizarte-zerbitzuetan egiten direla, ezin dugu ulertu zaintzaile hauen lan-baldintzen inguruko jarraipenik ez egitea eta etxeko bisitak lan hori ere egiteko ez erabiltzea.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoaren bitartez kontratatzen diren zaintzaileen lan-baldintzen jarraipena eta ikuskaritza egiteko bidea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin adosteko ahalegina egin dezala, prekarietate egoerak ekiditeko eta zaintzailearen zein zainduaren eskubideak eta betebeharrak bete daitezen.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, hirian etxeko zaintzaileekin lan egiten duten elkarte eta eragileekin harremanetan jar dadila, zaintzaileek pairatzen dituzten egoera prekarioen eta kezken inguruko informazioa jasotzeko.

Donostian, 2022ko irailaren 22an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

